

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Azken Aldia bezala sortuko dugun enpresarako funtsezko elkarteak sortzea ezinbestekoa da, hau da, hornitzaile eta kide sareekin aliantzak egitea. Gure enpresaren ideia gazteentzako lokalak egitea den horretan, enpresa ugarirekin egin beharko genituzke aliantzak; izan ere, espazio bat bakarrik izatearekin ez dugu ezer lortuko, beraz, lokalak hornitu egin beharko ditugu denon erosotasuna eta segurtasuna bilatzeko.

Alde batetik, **Garbiondo** enpresarekin aliatuko gara gure lokalak garbi mantentzea ezinbestekoa iruditzen zaigulako. Gure bezeroei gutxieneko garbitasun eta txukuntasun bat mantentzea eskatuko genieke, baina erabilerarekin lokala garbia mantentzea ezinezkoa izango litzatekeenez, garbitzaile enpresa batekin elkartuko ginake. *Garbiondo* enpresa aukeratuko genuke, izan ere, gure eskualdeko enpresa bat den horretan beharrezkoa iruditzen zaigu elkar babestea.

Bestalde, "WI-FI" sare bat eskaintzea beharrezkoa izango dugu, horregatik, aukera onena **Movistar** enpresarekin harremantzea da. Horri esker "WI-FI" zerbitzua eskaintzeaz gain, hainbat "streaming" plataformetako pelikula eta telesail ugarietara sarbidea edukiko genuke. Izan ere, *Movistarren* eskeintzen barruan oferta erakargarriak daude non bezeroek ahalko duten plataforma ugariaren artean ikusi nahi dituzten edukiak aukeratu.

Jarraituz, lokalean beharrezkoak izango ditugu altzariak eta **Ideeform** enpresa baliatuko genuke horretarako. Esperientzia handia duten enpresa bat den horretan segurtasuna ematen digute, gainera, euskal enprekin elkartzeko aukera bikaina da.

Horrez gain, lokalaren eta bezeroen segurtasuna premiazkoa denez, kanpoaldean kamara sistema bat ezartzea beharrezkoa ikusten dugu. Horretarako **Securitas Direct** enpresaren babesa bilatuko dugu, gure bezeroak seguru sentitu daitezen beti.

Hornitzaileez gain, gure negozioa ezagutzera emateko, adin tarte honekin lan egiten duten beste eragileren batekin harremana egitea ondo legoke. Horregatik, **Kuadrillategi** proiektuarekin aliantza bat egitea pentsatu dugu; izan ere, gazte asko dira proiektu honetan izen eman dutenak urteetan zehar, eta, beraz, gazte horien guztien artean gure enpresa zabaltzea lortuko genuke.

Azkenik, Udalarekin harremana izatea ere interesgarria izan liteke. Horrelako eskaintza bat herriarentzat onuragarria izan daitekeen horretan, haien bitartez behar dugun lokal handi hori eskuratzea errazagoa liteke.

Azken Aldia